

I.ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
<p>1.- Antzinasuna</p> <p>1.1. Antzinasuna ikastetxean. (ikusi bigarren xedapen osagarria)</p> <p>1.1.1.Parte hartzen deneko ikastetxean behin betiko destinoarekin karrerako funtzionario gisa etenik gabe iraun den urte bakoitzeko. Azpiatal honetarako, lanpostu hutsaren kidegoan edo kidegoetan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak soilik zenbatuko dira.</p> <p>Lehen eta bigarren urteak: Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,3333 puntu emango dira hilabete osoko.</p> <p>Hirugarren urtea: Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,5000 puntu emango dira hilabete osoko.</p> <p>Laugarren urtea eta hurrengoak Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,6666 puntu emango dira hilabete osoko.</p>	<p>4,0000 puntu urteko</p> <p>6,0000 puntu</p> <p>8,0000 puntu urteko</p>	<p>Hezkuntza-administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria edo administrazio-tituluaren edo karrerako funtzionario izendatu zutenetik izandako jabetza eta kargu-uzteen diligentzien egiaztagiria –kidegoa eta espezialitatea adieraziko dituena– edo, kasua bada, Langileen Erregistroko inskripzio-agiriei dagozkienak.</p> <p>** Ofizios zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden emandako zerbitzuak.</p>
<p>1.1.1.azpiatala baloratzeko, kontuan hartuko dira egoera hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehiaketan parte hartzen deneko ikastetxetzat joko da honako hau: behin betiko destinoa daukan izangaia plantillakoa den ikastetxea, edo atxikita dagoen ikastetxea, baldin eta bere irakas-destinoa galtzea badakar egoera horrek; horri dagokionez, lanpostu huts horri dagokion kidegoan edo kidegoetan karrerako funtzionario gisa betetako zerbitzuak soilik kontatuko dira azpiatal honetan.</li> <li>- Atzerriko ikastetxe publiko espainiarretan aldi baterako atxikipenean dauden irakasle funtzionarioen kasuan, edo antzeko kasuetan, atxikipen horrekin etengabe egindako denboraldia hartuko da kontuan azpiatal honetako puntuazioa emateko. Irizpide bera erabiliko da hezkuntza-administrazioaren ikerketa eta irakaskuntzari laguntzeko beste zerbitzu edo lanpostu batzuetarako izendatu direnekin ere, izendapen horrek lehen zeukaten irakas-destinoa galtzea ekarri duen kasuetan.</li> <li>- Beren atxikipena bukatu eta behin-behinean jatorriko hezkuntza-administraziara itzultzen direnean, parte hartzen deneko ikastetxetzat hartuko da atxikipenean emandako destinoa. Egoki bada, horren ondoren eta behin-behinean beste edozein ikastetxetan emandako zerbitzuak gehituko zaizkio horri.</li> <li>- Behin betiko gisa lan egiten zuteneko plaza edo lanpostua ezabatu egin zaielako (epai bat edo errekurso-ebazpen bat betearaztearen ondorioz beren destinoa galdu dutelako, nahitaezko eszedentziatik datozelako edo ordutegia nahikoa izan ez eta zentrotik mugitu behar dutelako) lehiaketan behin-behineko egoeran parte hartzen dutenei dagokienez, parte hartzen duteneko ikastetxetzat joko da behin betiko izaerarekin lan egin deneko azkena; hala badagokio, geroztik edozein ikastetxetan behin-behinean emandako zerbitzuak gehituko dira. Gainera, eskubidea izango dute jatorrizko ikastetxeari justu aurreko ikastetxean behin betiko izaeraz emandako zerbitzuak gehitzeko. Hala badagokio, lanpostua behin eta berriro ezabatu zaienen kasuan, lanpostuak ezabatu zitzaizkien ikastetxeetan behin betiko izaeraz emandako zerbitzuak gehituko zaizkie.</li> <li>- Ezabatutakoa ez den behin betiko beste destino bat izan ez bada, jatorrizko ikastetxean berau lortu baino lehen behin-behinean emandako zerbitzuak metatzeko eskubidea izango da, eta, kasu horretan, eman beharreko puntuazioa baremoaren 1.1.2 azpiatalean xedatutakoaren araberakoa izango da.</li> <li>- Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, nahitaez lekualdatzeko diziplina-zehapena betez beren destinoa galdu (destinoko herria aldatu beharrekin) eta horregatik lehiaketan parte hartu dutenei.</li> </ul>		

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
- Aurrez behin betiko betetzen zen plaza edo lanpostua ezabatu ostean behin betiko lehenengo destinoa lortzen den kasuetan, lehiaketan parte hartzen deneko ikastetxean emandako zerbitzu gisa honako hauek hartuko dira: lanpostua ezabatu zitzaizen ikastetxean egiaztatutako zerbitzuak eta, hala badagokio, hura ezabatu ostean behin-behinean emandako zerbitzuak. Irizpide hori bera aplikatuko zaie epai bat edo errekurso-ebazpen bat betearazi behar izan delako, nahitaezko eszedentziatik datozelako edo ordutegia nahikoa izan ez eta zentrotik mugitu behar izan dutelako, aurreko destinoa galdu eta lehenengo destinoa lortu dutenei.		
<p>1.1.2. Aldi baterako egoeran karrerako funtzionario gisa egindako urte bakoitzeko, betiere egoera horretatik parte hartzen bada:</p> <p>Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,3333 puntu emango dira hilabete osoko.</p> <p>Lehiaketa bidez lortutako behin betiko lehenengo destinotik borondatez parte hartzen duten karrerako funtzionarioen kasuan, 1.1.1 azpiatalari dagokion puntuazioari azpiatal honetan lortutakoa gehituko zaio. Destino berri bat lortzen denean, ezingo da puntuazio hau gehitu.</p>	4,0000 puntu	<p>Hezkuntza-administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria edo administrazio-tituluaren edo karrerako funtzionario izendatu zutenetik izandako jabetza eta kargu-uzteen izapideen egiaztagiria edo, kasua bada, Langileen Erregistroko inskripzio-agiriei dagozkienak.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden emandako zerbitzuak.</p>
<p>1.1.3. Behin betiko destinoko, behin-behineko destinoko edo zerbitzu-eginkizuneko egoeran dagoen plaza, lanpostu edo ikastetxean karrerako funtzionario gisa egindako urte bakoitzeko, baldin eta, zerbitzuak eman diren unean, ikastetxeak zailtasun bereziko kalifikazioa badu (ikus bigarren xedapen osagarria):</p> <p>Puntuazio hori 1.1.1 edo 1.1.2 azpiataletan lortutako puntuazioari gehituko zaio.</p> <p>Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,3333 puntu emango dira hilabete osoko.</p> <p>Aitzitik, ez da azpiatal honetan kontuan hartuko ikastetxetik kanpo zerbitzu berezitan, zerbitzu-eginkizunetan, ikasketa-baimenekin edo antzekoekin egindako denbora, baldin eta lanpostuari dagokion lana benetan egin ez bada.</p> <p>Behin betiko destinoa lortu ondoren, azpiatal honetan bakarrik barematu ahal izango da destino hori lortu ondoren ematen diren zerbitzuengatik egiazta daitekeen puntuazio berria.</p>	4,0000 puntu	<p>-Hezkuntza-administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria, eta lanpostuak edo ikastetxeak sailkapen hori duela adierazteko organo horrek berak emandako egiaztagiria edo</p> <p>-Hezkuntza-administrazio eskudunak emandako egiaztagiria, aipatutako lanpostu edo ikastetxean benetan eskaini diren zerbitzuen hasiera- eta amaiera-datak bilduko dituena. Egiaztagiri horretan, aipatutako lanpostu edo ikastetxeak zailtasun bereziko sailkapena duela zehaztuko da.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailean emandako zerbitzuak.</p>
<p>1.2.- Antzinatasuna kidegoan.</p> <p>1.2.1.- Lanpostu hutsari dagokion kidegoan edo kidegoetan karrerako funtzionario, praktiketako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa zerbitzu aktiboan emandako benetako zerbitzuen urte bakoitzeko:</p> <p>Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,1666 puntu emango dira hilabete osoko.</p>	2,0000 puntu	<p>Hezkuntza-administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria edo administrazio-titulua edo karrerako, praktiketako edo bitarteko funtzionario gisa izandako jabetzak eta kargu-uzteak hartzeko eginbideen egiaztagiria edo, hala badagokio, langileen erregistroetako inskripzio-agiriak.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoan eta beste erkidego batzuetan emandako zerbitzuak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza</p>
1.2.2. Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak aipatzen dituen irakaskuntzako beste kidegoetan karrerako funtzionario, praktiketako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa	1,5000 puntu	

<p>benetan emandako zerbitzuak, azpitalde bereko edo goragokoak, urte bakoitzeko: Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,1250 puntu emango dira hilabete osoko.</p>		<p>Saileko Langileen Erregistroan badaude.</p>
<p>1.2.3. Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak aipatzen dituen irakaskuntzako beste kidegoetan karrerako funtzionario, praktiketako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa benetan emandako zerbitzuak, beheragoko azpitaldekoak, urte bakoitzeko:  Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,0625 puntu emango dira hilabete osoko.</p>	<p>0,7500 puntu</p>	
<p>- 1.1 azpiatal honetan aurreikusitako kasuetan, Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedradunen kidegoetako karrerako funtzionarioei, ikastetxeko antzinatasunaren ondorioetarako, dagokien irakasleen kidegoetan funtzionario gisa emandako zerbitzuak baloratuko zaizkie, bai eta Batxilergoko, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Arte Aplikatuaren eta Lanbide Artistikoen Eskoletako Amaierako Irakasleen katedradunen antzinako kidegoetan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak ere. Era berean, 1.2 azpiatalean jasotako kasuetan, Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Arte Plastiko eta Diseinuko katedradunen kidegoetako karrerako funtzionarioei, Kidegoko antzinatasunaren ondorioetarako, dagokien irakasleen kidegoetan funtzionario gisa emandako zerbitzuak baloratuko zaizkie, bai eta Batxilergoko, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Arte Aplikatuaren eta Lanbide Artistikoen Eskoletako Amaierako Irakasleen katedradunen antzinako kidegoetan karrerako funtzionario gisa emandakoak ere.</p> <p>- Baremoaren 1.1 eta 1.2 azpiataletan jasotako kasuetan, Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegotik (desagertzeaz) datozen Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan dauden irakasleei, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko plazetara aurkeztu badira, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoaren Kidegoan (desagertzeaz) emandako zerbitzuak zenbatuko zaizkie, eta eskatutako lanpostu hutsari edo hutsei dagokien Kidego berean emandakotzat hartuko dira, betiere gaur egun Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegokoak diren espezialitateetan emandako zerbitzuak badira. Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegotik (desagertzeaz) datozen Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan dauden irakasleei, Lanbide Heziketako sektore berezietako Irakasle Espezialisten Kidegoko plazetara aurkeztu badira, baremoaren 1.1 eta 1.2 ataletan zenbatuko zaizkie Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoaren Kidegoan (desagertzeaz) emandako zerbitzuak bai eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartu zirenetik emandakoak ere, eta eskatutako lanpostu hutsari edo hutsei dagokien Kidego berean emandakotzat hartuko dira, betiere gaur egun Lanbide Heziketako sektore berezietako Irakasle Espezialisten Kidegokoak diren espezialitateetan emandako zerbitzuak badira.</p> <p>- Baremoaren 1.1 eta 1.2 azpiataletan jasotako kasuetan, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoaren Kidegoko (desagertzeaz) irakasleei, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko plazetara aurkeztu badira, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoaren Kidegoan (desagertzeaz) emandako zerbitzuak zenbatuko zaizkie, eta eskatutako lanpostu hutsari edo lanpostu hutsei dagokien kidego berean emandakotzat hartuko dira, betiere gaur egun Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegokoak diren espezialitateetan emandako zerbitzuak badira. Lanbide Heziketako sektore berezietako Irakasle Espezialisten Kidegoko plazetara aurkeztu diren Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoaren Kidegoko (desagertzeaz) dauden irakasleen kasuan, baremoaren 1.1 eta 1.2 ataletan Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoaren Kidegoan (desagertzeaz) emandako zerbitzuak zenbatuko zaizkie, eskatutako lanpostu hutsari edo lanpostu hutsei dagokien Kidego berean emandakotzat hartuta, betiere Lanbide Heziketako sektore berezietako Espezialisten Kidegokoak diren espezialitateetan emandako zerbitzuak badira.</p> <p>- 1.2.2. eta 1.2.3. azpiataletan aipatutako zerbitzuak batera bete diren urteetan ez dira kontuan hartuko edo, 1.1.1. edo 1.1.2. azpiataletako zerbitzuekin aldi berean izan direnean.</p> <p>- 1.1.1., 1.1.2, 1.2.1., 1.2.2. eta 1.2.3 azpiatalen ondorioetarako, zerbitzu berezietan egin diren zerbitzuak hartuko dira kontuan, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOELTB) 87. artikuluan – Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua– aurreikusitako apartatuetan horrelakotzat espresuki adierazi direnean. Aipatutako lege horren aurreko xedapenek ezarritako egoera berdina ere kontuan hartuko dira. Era berean, ondorio hauetarako, senideak zaintzeko hartutako eszedentziaren denbora ere kontuan hartuko dira, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen EPOELTBaren 89.4 artikulua araberak, eta denbora hori ezingo da hiru urtetik gorakoa izan.</p>		

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
<p>2.- Katedradunen kidegokoa izatea.</p> <p>Bigarren Hezkuntzako, Musikako eta Arte Eszenikoetako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedradunen kidegoetako karrerako funtzionario izateagatik:</p>	5,0000 puntu	<p>Hezkuntza-administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria, lehiakide katedradunen kidegokoa dela adierazten duena, edo administrazio-tituluaren edo egiaztagiraren kopia edo, hala badagokio, izendapenaren berri ematen duen buletin edo aldizkari ofiziala.</p> <p>** Euskal Autonomia Erkidegoko katedradunen kidegokoa izatea ofizioz zenbatuko da.</p>
<p>3.- Merezimendu akademikoak.</p> <p>Atal honetan baloratu ahal izateko, Espainiako estatuan balio ofiziala duten tituluak soilik hartuko dira kontuan.</p> <p>(Ikus hirugarren xedapen osagarria).</p>	10 puntu gehienez.	
<p>3.1.-. Doktoregoa, graduondokoak eta aparteko sariak:</p> <p>3.1.1. Doktore-titulu bakoitzeko:</p>	6,0000 puntu	<p>Tituluaren kopia edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria edo titulazioaren egiaztagiri osagarria, bat etorritik, hala badagokio, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE), zeina urtarrilaren 23ko 185/1985 eta azaroaren 6ko 1496/1987 errege-dekretuak aplikatzeko unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzkoa baita, edo 2007ko abuztuaren 13ko ECI/2514/2007 Aginduan (21eko BOE) edo Unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan (abuztuaren 6ko BOE) jasota dagoenarekin.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko da doktore-titulua (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago).</p>
<p>3.1.2. Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatutakoa ez den eta lortzeko gutxienez 60 kreditu eskatzen dituen Masterraren edo arte-irakaskuntzen unibertsitate-titulu ofizial bakoitzeko:</p> <p>Unibertsitateko masterraren edo arte-irakaskuntzen titulu ofiziala irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko ezarritako baldintza bada dagokion kidegoan, titulu hori ez da baloratuko.</p> <p>Merezimendu hori ez da baloratuko Doktore-titulua alegatu denean, salbu eta Doktoregoan sartzeko baldintza gisa erabili ez dela egiaztatzen bada.</p>	3,0000 puntu	<p>3.1.1. ataleko merezimenduak justifikatzeko adierazten den justifikazio-dokumentazio bera.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko da Masterraren unibertsitate-titulu ofiziala (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago).</p>

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
<p>3.1.3. Ikertzeko nahikotasunagatik edo ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diploma bakoitzeko.</p> <p>Merezimendu hori ez da baloratuko titulu horiek alegatzen den Doktore-titulua lortzeko erabili badira.</p>	2,0000 puntu	Dagokion ziurtagiri-diplomaren kopia.
<p>3.1.4. Doktorego, lizentzian edo graduari aparteko saria lortu izanagatik edo, goi-mailako arte irakaskuntzen kasuan, graduari aparteko saria lortzeagatik, edo goi-mailako arte irakaskuntzak ematen dituzten Musika Kontserbatorio Nagusiek eta Eskolek emandako titulazioen kasuan, goi-mailan ohorezko aipamena lortu izanagatik</p>	1,0000 puntu	Hori egiaztatuko duen agiriaren kopia..
<p>3.2.- Unibertsitateko beste titulazio batzuk:</p> <p>Izaera ofizialeko unibertsitate-titulazioak edo goi-mailako arte irakaskuntzetakoak, lehiaketan parte hartzeko aukeraturako kidegoan sartzeko oro har baldintza gisa aurkeztu ez badira, honela baloratuko dira:</p> <p>3.2.1.- Gradu-titulazioak:</p> <p>Graduko unibertsitate-titulu ofizialagatik edo baliokideagatik:Kidegoan sartzeko oro har eskatzen denaz bestelako Unibertsitate-graduak edo goi-mailako arte-irakaskuntzako titulu ofizial bakoitzeko:</p> <p>Gradu-titulua unibertsitateko edo goi-mailako arte-irakaskuntzako beste titulazio batzuen bidez lortzen bada, eta titulu hori osatzen duten ikasketa guztiak egin ez badira, 2,500 punturekin baloratuko da.</p> <p>Ez dira titulu desberdintzat hartuko titulazio berean dauden aipamen edo espezialitateak.</p>	5,0000 puntu	<p>3.1.1. ataleko merezimenduak justifikatzeko adierazten den justifikazio-dokumentazio bera eta ziurtagiri akademikoa, graduak titulu bakoitza osatzen duten irakaskuntza guztiak egin direla jasotzen duena.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden gradu-tituluak, 2,5000 puntuko puntuazioarekin, salbu eta titulu horien ziurtagiri akademikoa aurkezten bada, titulu horiek osatzen dituzten irakaskuntza guztiak egin direla jasotzen duena.</p>
<p>3.2.2.- Lehen zikloko titulazioak:</p> <p>Diploma, ingeniari tekniko, arkitektura tekniko edo legez horien baliokidetzat jotako bigarren edo gainerako tituluengatik eta lizentzia, arkitektura edo ingeniari baten lehen zikloari dagozkion ikasketengatik:</p> <p>A2 azpitaldeko irakasle funtzionarioen kasuan, ez da atal honetarako baloratuko, inola ere ez, lehen titulua edo izaera horrekin aurkeztutako lizentzia, ingeniari tekniko, arkitektura edo graduaren lehen titulua lortzeko gaitasun behar izan badituzte, irakaskuntzaren ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio baten bidez kidegoan sartu izana alde batera utzita.</p> <p>A1 azpitaldeko irakasle funtzionarioen kasuan, ez zaie atal hau baloratuko, inola ere ez, izaera horretako titulu edo ikasketak aurkeztutako lizentzia, ingeniari tekniko, arkitektura edo graduaren lehen titulua lortzeko gaitasun behar izan badituzte, irakaskuntzaren ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio baten bidez kidegoan sartu izana alde batera utzita.</p>	3,0000 puntu	<p>Lortutako titulu guztien kopia edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) xedatutakoaren arabera.</p> <p>Lizentzia, arkitektura edo ingeniari baten lehen zikloari dagozkion ikasketen balorazioa egiteko, aipatu titulu edo zikloak lortzeko beharrezko irakasgai edo kreditu guztiak gaitasun behar izan direla berriaz adieraziko duen egiaztapena aurkeztu beharko da.</p> <p>Ondorioz, lizentzia, ingeniari tekniko edo arkitektura titulua besterik ez aurkezteak 1. zikloko tituluari dagozkion puntuak ez onartzea ekarriko du.</p>

<p>Titulu berean dauden aipamen edo espezialitate desberdinak ez dira titulutzat hartuko.</p> <p>Ez dira baloratuko merezimendu gisa alegatzen dituzten ziklo luzeko beste titulazio akademiko batzuk lortzea ahalbidetu duten lehen zikloak.</p>		<p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko langile-erregistroan jasotako diplomak, ingeniaritza teknikoak eta arkitektura teknikoak, A1 azpiataleko irakasle funtzionarioek lizentziadunaren, ingeniariaren edo arkitektoaren lehen titulua lortzeko gainditu behar izan direnean izan ezik.</p>
<p>3.2.3. Bigarren zikloko titulazioak:</p> <p>Lizentziatako, ingeniaritzetako edo arkitekturetako bigarren zikloko ikasketengatik, edo legez baliokide deklaraturako beste titulu batzuegatik:</p> <p>A1 azpitaldeko irakasle funtzionarioen kasuan, ez zaie atal hau baloratuko, inola ere ez, izaera horretako titulu edo ikasketak aurkeztutako lizentzia, ingeniaritza, arkitektura edo graduaren lehen titulua lortzeko gainditu behar izan badituzte (lehen zikloa, bigarren zikloa, edo, hala badagokio, irakaskuntza osagarriak).</p> <p>Bigarren zikloa soilik duten titulazioak eta, ondorio guztietarako, lizentziaren unibertsitate-tituluarekiko baliokide gisa onartutako tituluak bigarren ziklo gisa soilik baloratuko dira.</p> <p>Titulu berean dauden aipamen edo espezialitate desberdinak ez dira titulu desberdintzat hartuko</p>	<p>3,0000 puntu</p>	<p>Lortutako titulu guztien kopia edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) xedatutakoaren arabera.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira lizentziak, ingeniaritzak eta arkitekturak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude.</p>

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
<p>3.3.- Lanbide-heziketako irakaskuntzen, arte- eta kirol-irakaskuntza profesionalen eta hizkuntzen irakaskuntzen titulazio ofizialak:</p> <p>Hizkuntza Eskola Ofizialek, Musika eta Dantza Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailakoek eta Arte Eskolek ematen dituzten Araubide Bereziko irakaskuntzen titulazioak, bai eta Lanbide Heziketarenak ere, irakaskuntzako funtzio publikora sartzeko baldintza gisa eskatu ez badira edo alegatutako titulua eskuratzeko beharrezkoak izan ez badira, honela baloratuko dira:</p> <p>a) Europako Kontseiluko C2 mailaren egiaztagiri bakoitzeko: 4,0000 puntu</p> <p>b) Europako Kontseiluko C1 mailaren egiaztagiri bakoitzeko: 3,0000 puntu</p> <p>c) Europako Kontseiluko B2 mailaren egiaztagiri bakoitzeko: 2,0000 puntu</p> <p>d) Europako Kontseiluko B1 mailaren egiaztagiri bakoitzeko: 1,0000 puntu</p> <p>Izangaiak hizkuntza beraren hainbat titulu edo ziurtagiri aurkezten baditu, maila altuena duena baino ez da kontuan hartuko.</p> <p>Atal honetan edo 5.5. atalean xedatutakoaren arabera egiaztatutako atzerriko hizkuntza baten ezagutza-ziurtagiriak behin bakarrik baloratuko dira atal batean edo bestean. Era berean, atal horietan hizkuntza bereko hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten mailen ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten badira baloratzeko, ziurtagiri bakar bat baloratuko da atal batean, eta bat etorriko da hizkuntza horren ezagutza-maila altuena egiaztatzen duenarekin.</p> <p>e) Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren titulu, goi-mailako kirol-teknikariaren titulu edo Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariaren titulu edo horren titulu baliokide bakoitzeko: 2,0000 puntu</p> <p>f) Musika- edo dantza-titulu profesional bakoitzeko: 2,0000 puntu</p>		<p>Hizkuntza Eskola Ofizialen ziurtagiriak, Musika edo Dantza Titulu Profesionalek eta Lanbide Heziketako tituluak baloratzeko:</p> <p>Ziurtagiriaren/Tituluaren fotokopia edo, hala badagokio, titulu hori igorrita dagoela ziurtatzen duen egiaztagiria edo berau lortzeko beharreko ikasketa guztiak gainditu direla ziurtatzen duen egiaztagiria.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako ziurtagiriak/tituluak, Lanbide Heziketakoak eta Musikako edo Dantzako titulu profesionalak, Euskal Autonomia Erkidegokoak zein beste autonomia-erkidego batzuetakoak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude.</p>
<p>3.3.a), b), c) eta d) eta 5.5 atalak</p> <p>– Hizkuntza baten maila beraren ezagutza egiaztatzen bada erakunde desberdinek emandako bi titulu edo ziurtagiri edo gehiagoren bidez, 3.3. eta 5.5 azpiataletan aurreikusitakoaren artean, behin bakarrik puntuatuko da hizkuntza horren ezagutza, 3.3 azpiatalean, salbu eta parte-hartzaileak kontrakoa adierazten badu.</p> <p>– Hizkuntza bereko maila desberdinen ezagutza egiaztatzen bada erakunde desberdinek emandako titulu edo ziurtagiri bi edo gehiagoren bidez, 3.3. eta 5.5 azpiataletan aurreikusitakoaren artean, egiaztatutako maila gorenari dagokion azpiatalean bakarrik emango da puntuazioa, parte-hartzaileak kontrakoa adierazten ez badu behintzat.</p>		

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
<p>4.- Zuzendaritza-karguak eta beste funtzio batzuk bete izana: (Ikus laugarren xedapen osagarria)</p> <p>4.1.- Ikastetxe publikoetan, irakasle eta baliabide ikastegietan edo laugarren xedapen osagarrian ezarritako antzeko erakundeetan zuzendari edo zuzendariaren ondoko lanetan edota Espainiako hizkuntzako eta kulturako elkarrekin zuzendari emandako lanetan, urte bakoitzeko:</p> <p>Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,3750 puntu emango dira hilabete osoko.</p>	<p>30 puntu gehienez.</p> <p>4,5000 puntu</p>	<p>Eskuduntzak dituen hezkuntza-administrazioak emandako zerbitzu-orria, jabetze eta kargu-uzteen izapideen datekin edo, izendapenaren kopia, jabetze eta kargu-uzteen izapideekin edo, hala badagokio, ikasturte honetan karguan jarraitzen duela jasotzen duen egiaztagiria</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta autonomia-erkidego honetatik kanpoko ikastetxe publikoetan izandako zuzendaritza-kargu hauek, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude:</p> <p>Zuzendaria, idazkaria, ikasketaburua, eta horien ondokoak, zuzendariordea, idazkariordea, Lanbide Heziketako idazkariordea, Gaueko Ikasketetako burua eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako administratzailea.</p>
<p>4.2.- Laugarren xedapen osagarrian ezarritako ikastetxe publikoetan zuzendariorde, ikasketaburu, idazkari edo antzekoetan aritu izandako urte bakoitzeko:</p> <p>Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,2500 puntu emango dira hilabete osoko.</p>	<p>3,0000 puntu</p>	<p>Zuzendaria, idazkaria, ikasketaburua, eta horien ondokoak, zuzendariordea, idazkariordea, Lanbide Heziketako idazkariordea, Gaueko Ikasketetako burua eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako administratzailea.</p>
<p>4.3. Irakasleen koordinazioko karguak, tutoretza-funtzioa eta antzeko figurak:</p> <p>Ikastetxe publikoetan ziklo-koordinatzaile, mintegi, departamentu edo saileko buru, etengabeko prestakuntzako aholkulari edo hezkuntza eta psikopedagogiako orientabide-talde bateko zuzendari aritutako urte bakoitzeko, laugarren xedapen osagarrian jasotako beste hainbat funtzio beteaz aritu izandako urte bakoitzeko, bai eta Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan indarrean jarri eta tutoretza-funtzioa bete den urte bakoitzeko ere:</p> <p>Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,1250 puntu emango dira hilabete osoko. (Ikus laugarren xedapen osagarria)</p>	<p>10,0000 puntu gehienez</p> <p>1,5000 puntu</p>	<p>Ikastetxeko edo eskuduntzak dituen organoko zuzendariaren ziurtapena, aipatu funtzioen jabetze eta uzteen epeak adierazten dituen, edo izendapenaren kopia, jabetze eta funtzio-uzteen izapideekin, edo, hala badagokio, ikasturte honetan irakaskuntza-lanetan jarraitzen duela jasotzen duen egiaztagiria.</p>
<p>4.1, 4.2 eta 4.3, azpiatalengatik funtzionario lanetan jardun izana baloratuko da. Kargu edo funtzio horietako bat baino gehiago aldi berean bete izanagatik ere ezinezkoa izango da puntuak metatzea eta, beraz, parte-hartzailearentzat onuragarriena dena hartuko da kontuan. Horretarako, Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Arte Plastikoen eta Diseinuko katedradunen kidegoetako karrerako funtzionarioen kasuan, dagokien irakasleen kidegoetan funtzionario gisa kargu horietan emandako zerbitzuak baloratuko zaizkie, bai eta antzinako Batxilergoko eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradunen eta Arte Aplikatuaren eta Lanbide Artistikoen Eskoletako Amaierako irakasle numerarioen kidegoetan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak ere.</p>		



MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
<p>5.- Prestakuntza eta hobekuntza. (ikus bosgarren xedapen osagarria)</p> <p>5.1.- Gainditutako prestakuntza-jarduerak.</p> <p>Parte-hartzailearen kidegoari edo aukeratutako lanpostuei dagozkien espezialitateen alde zientifiko eta teknikoan hobekuntza helburu duten gainditutako jarduerak, edo eskola-antolaketa edota hezkuntzari edo hezkidetzari aplikatutako teknologiei lotutakoak, Hezkuntza Ministerioak, hezkuntzaren alorrean eskumenak esleituta dituzten sailek, aipatutako hezkuntza-administrazioen homologazioa edo aitortza lortu duten irabazteko asmorik gabeko erakundeek antolatutakoak, bai eta Unibertsitateek antolatutakoak ere.</p> <p>Egiaztatzen diren jardueretako 10 orduko 0,1000 puntu emango dira. Horretarako, ikastaro guztietako orduak gehituko dira; gainerako orduak 10etik beherakoak badira ez dira kontatuko. Ikastaroak kreditutan adierazi badira, kreditu bakoitza 10 ordu direla ulertuko da.</p> <p>(Ikus bosgarren xedapen osagarria).</p>	<p>15 puntu gehienez.</p> <p>9,0000 puntu gehienez</p>	<p>Erakunde antolatzaileak emandako egiaztagiraren kopia, berariaz jardueraren iraupenaren ordu-kopurua adieraziz.</p> <p>Irabazte xederik gabeko erakundeek antolatutakoetan, gainera, dagokion hezkuntza-administrazioak onartu edo homologatu duela era sinesgarrian egiaztatu beharko da edo hezkuntza-administrazioko trebakuntza-erregistroan izen ematearen egiaztagiria aurkeztuko da.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-jarduerak, bai eta aipatutako Hezkuntza Sailak homologatu edo onartutako irabazi asmorik gabeko erakundeek antolatutakoak ere, baldin eta Hezkuntza Sailaren prestakuntza-jardueren erregistroan jasota badaude.</p>
<p>5.2.- Emandako prestakuntza-jarduerak.</p> <p>5.1. azpiatalean adierazitako trebakuntza eta hobekuntzarako jarduerak emateagatik.</p> <p>Egiaztatzen diren prestakuntza-jardueretako 3 orduko 0,1000 puntu emango dira. Horretarako, ikastaro guztietako orduak gehituko dira; gainerako orduak 3tik beherakoak badira, ez dira kontatuko. Ikastaroak kreditutan adierazi badira, kreditu bakoitza 10 ordu direla ulertuko da.</p> <p>(Ikus bosgarren xedapen osagarria).</p>	<p>3,0000 puntu gehienez</p>	<p>Jarduerak eman direnaren egiaztagiraren kopia, berariaz jardueraren iraupenaren ordu-kopurua adieraziz.</p> <p>Irabazi asmorik gabeko erakundeek antolatutakoetan, gainera, dagokion hezkuntza-administrazioak onartu edo homologatu duela era sinesgarrian egiaztatu beharko da edo hezkuntza-administrazioko prestakuntza-erregistroan izen ematearen egiaztagiria aurkeztuko da.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-jarduerak, bai eta aipatutako Hezkuntza Sailak homologatu edo onartutako irabazi asmorik gabeko erakundeek antolatutakoak ere, baldin eta Hezkuntza Sailaren prestakuntza-jardueren erregistroan jasota badaude.</p>

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
<p>5.3.- Kidegoan sartzekoaz bestelakoa den eta lehiatzeko erabili nahi den espezialitate bakoitzeko, espezialitate berriak eskuratzeari buruzko ekainaren 4ko 850/1993, otsailaren 27ko 334/2004 eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuetan aurreikusitako prozeduraren bidez lortu badira:</p> <p>(Ikus bosgarren xedapen osagarria, 2. puntua)</p> <p>Azpiatal honetarako, katedradunen kidegoen kasuan, dagokion irakasleen kidegoan lortutako espezialitateak baloratuko dira.</p>	1,0000 puntu	<p>Espezialitate berria lortu izanaren egiaztagiriaren kopia, dagokion hezkuntza-administrazioak emana.</p> <p>** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan Hezkuntza Sailean espezialitate berria lortu izana ofizioz zenbatuko da.</p>
<p>5.4.- Hezkuntza-administrazioek kompetentzia digitala egiaztatzen ematen dituzten ziurtagiriak honela baloratuko dira:</p> <p>a) Kompetentzia digitaleko A1 maila egiaztatzeagatik</p> <p>b) Kompetentzia digitaleko A2 maila egiaztatzeagatik</p> <p>c) Kompetentzia digitaleko B1 maila egiaztatzeagatik</p> <p>d) Kompetentzia digitaleko B2 maila egiaztatzeagatik</p> <p>e) Kompetentzia digitaleko C1 maila egiaztatzeagatik</p> <p>f) Kompetentzia digitaleko C2 maila egiaztatzeagatik</p> <p>Irakaskuntzako kompetentzia digitalaren maila desberdinak egiaztatzen direnean, parte-hartzaileak aurkeztutako goimailako egiaztapena baino ez da kontuan hartuko.</p>	<p>3 puntu gehienez</p> <p>0,5000 puntu</p> <p>1,0000 puntu</p> <p>1,5000 puntu</p> <p>2,0000 puntu</p> <p>2,5000 puntu</p> <p>3,0000 puntu</p>	<p>Hezkuntza-administrazio eskudunak emandako egiaztagiriaren kopia.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak emandako kompetentzia digitalaren egiaztapena.</p>
<p>5.5.- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren sailkapenaren arabera atzerriko hizkuntza baten hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten atzerriko hizkuntza baten ezagutza-ziurtagiriak honela baloratuko dira:</p> <p>a) Europako Kontseiluko C2 mailaren ziurtagiri bakoitzeko.</p> <p>b) Europako Kontseiluko C1 mailaren ziurtagiri bakoitzeko</p> <p>c) Europako Kontseiluko B2 mailaren ziurtagiri bakoitzeko</p> <p>d) Europako Kontseiluko B1 mailaren ziurtagiri bakoitzeko</p> <p>Azpiatal honetan, Goi Mailako Hezkuntzako Hizkuntzen Ikastetxeen Elkartek onartutako atzerriko hizkuntzen ezagutza-ziurtagiriak baloratuko dira, eskabideak aurkezteko epea amaitzean indarrean dagoen ziurtagiri-taularen arabera.</p>	<p>4,0000 puntu</p> <p>3,0000 puntu</p> <p>2,0000 puntu</p> <p>1,0000 puntu</p>	<p>Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak sailkatutako atzerriko hizkuntza baten egiaztapen-ziurtagiria duen tituluaren kopia.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan dauden ziurtagiriak/tituluak.</p>

<p>Apartatu honetan baloratzeko hizkuntza berean hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten direnean, ziurtagiri bakar bat baloratuko da hizkuntza bakoitzeko, eta ziurtagiri hori goi-mailako ziurtagiriarekin bat etorriko da.</p> <p>Atzerriko hizkuntza baten ezagutza-ziurtagiriak, atal honetan edo 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera egiaztatuak, behin bakarrik baloratuko dira atal batean edo bestean. Era berean, atal horietan hizkuntza berean hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten maila desberdinen ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten direnean baloratzeko, ziurtagiri bakar bat baloratuko da apartatuetako batean, eta bat etorriko da hizkuntza horren ezagutza-maila handiena egiaztatzen duenarekin.</p>		
<p>6.- Beste merezimendu batzuk:</p> <p>(ikus seigarren xedapen osagarria)</p> <p>6.1.- Argitalpenak.</p> <p>Lehiaketaren gai diren diziplinei edo curriculumaren arlo orokor edo zuzeneko gaiei edo eskola antolaketari buruzko argitalpen didaktiko edo zientifikoengatik:</p> <p>Ez dira baloratuko azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuan (abenduaren 12ko 2063/2008 Errege Dekretuak aldatutakoa) ezarritakoari eutsiz ISBN edo, hala balegokio, ISSN edo ISMN ematera behartuta dauden argitalpenak baina halakorik azaltzen ez dutenak; era berean, ez dira baloratuko egilea eta argitaratzailea pertsona bera diren argitalpenak.</p> <p>Argitalpen horiek baloratzeko azpiatal honetan adierazitako egiaztagiria aurkeztuko dira bertan adierazten diren baldintzekin.</p> <p>Atal honetan baremoa ezar dakiekeen merezimenduei eman dakiekeen berariazko puntuazioa:</p> <p>a) Liburuak, zeinahi dela formatua (papera edo elektronikoa):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egilea..... 1,0000 puntu gehienez</li> <li>- Egilekidea..... 0,5000 puntu gehienez</li> <li>- 3 egile..... 0,4000 puntu gehienez</li> <li>- 4 egile..... 0,3000 puntu gehienez</li> <li>- 5 egile..... 0,2000 puntu gehienez</li> <li>- 5 egile baino gehiago..... 0,1000 puntu gehienez</li> </ul> <p>b) Aldizkariak, formatu desberdinetan (papera edo elektronikoa):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egilea..... 0,2000 puntu gehienez</li> <li>- Egilekidea..... 0,1000 puntu gehienez</li> <li>- 3 egile edo gehiago..... 0,0500 puntu gehienez</li> </ul>	<p>15 puntu gehienez.</p> <p>8,0000 puntu gehienez</p>	<p>-Liburuen kasuan (paperean, DVDan edo CDan), honako agiri hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>* Dagozkien ale originalak (ikus aurrerago paperezko dokumentuen salbuespena)</li> <li>* Argitaletxearen ziurtagiria, honako datu hauekin: liburuaren izenburua, egilea(k), ISBNa, legegordailua, lehen argitalpenaren data, ale kopurua, eta horien hedapena liburu- denda komertzialetan egin dela.</li> </ul> <p>Administrazio publikoek eta unibertsitateek (publikoak nahiz pribatuak) argitaratu eta liburu-denda komertzialetan banatu ez diren liburuei dagokienez, aurreko datuez gain, banaketa-zentroak (hezkontza-zentroak, irakasleen zentroak, kultura-erakundeak, etab.) ere aipatu behar dira ziurtagirian.</p> <p>Argitaletxea edo elkarte desagertu bada, zuzenbidean onargarria den edozein frogabideren bitartez justifikatu beharko dira eskatutako datuak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldizkarien kasuan (paperean, DVDan edo CDan), honako agiri hauek:</li> <li>* Dagozkien ale originalak (ikus aurrerago paperezko dokumentuen salbuespena)</li> <li>* Honako hauek adierazten dituen ziurtagiria: ale kopurua, banaketa- eta salmenta-lekuak, edo aldizkariaren zientzia- edo didaktika-elkarte, legez eratua, argitalpenaren izenburua, egilea(k), ISSN edo ISMN, legegordailua eta argitalpen-data.</li> </ul>

		<p>Administrazio publikoek eta unibertsitateek (publikoak nahiz pribatuak) argitaratu eta merkataritza-establezimenduetan banatu ez diren aldizkariak dagokienez, aurreko datuez gain, banaketa-zentroak (hezkuntza-zentroak, irakasleen zentroak, kultura-erakundeak, etab.) ere aipatu behar dira ziurtagirian.</p> <p>Paperezko liburu eta aldizkarien kasuan, jatorrizko aleen aurkezpenaren ordez pdf fitxategi bat aurkeztu ahal izango da, eta fitxategi hori merezimenduen aplikaziora igo beharko da. Pdf horrek, gutxienez, honako hauek jasotzeko beharko ditu: ataria, baloratu beharreko dokumentuaren lehen 10 orrialdeak, ISBN edo ISSNa agertzen den orrialdea edo orrialdeak, eta egilea edo egileak agertzen diren orrialdea edo orrialdeak.</p> <p>-Formatu elektronikoan soilik dauden argitalpenen kasuan, txosten bat ere aurkeztu beharko da, baloratuko badira; bertan, erakunde igoerleak ziurtatu beharko du argitalpena dagokion datu-base bibliografikoan agertzen dela. Dokumentu horretan honako hauek adieraziko dira: datu-basea, argitalpenaren izenburua, egileak, urtea eta URL helbidea.</p> <p>Aipatutako txostena aurkeztu ezin bada, erakunde igoerlea desagertu delako edo atzerrian argitaratutako argitalpenak direlako, Zuzenbidean onargarri den edozein frogabide erabilita egiaztatutako beharko dira txosten horretan eskatzen diren datuak.</p>
<p>6.2.- Hezkuntza Ministerioak edota autonomia-erkidegoetako hezkuntza-arloko administrazioek deitutako autonomia, nazio edo nazioarte mailako sariengatik.</p> <p>Eman daitekeen puntuazioa:  Nazioarteko saria: .....1,50 puntu (sari bakoitza).  Nazio mailako saria: .....puntu 1 (sari bakoitza).  Autonomia mailako saria: .....0,50 puntu (sari bakoitza).</p> <p>Hezkuntzaren alorreko berrikuntza- eta ikerketa-proiektuetan parte hartzeagatik.</p> <p>Ikerketa-proiektuetan edo berrikuntza-proiektuetan parte hartzeagatik: .....0,05 puntu urte bakoitzeko.</p> <p>(Ikus seigarren xedapen osagarria)</p>	<p>2,5000 puntu gehienez</p>	<p>Dagozkien sariak lortu izana egiaztatutako duten agiriak, deialdia egin duten erakundeek emanak edo ikerketa eta berrikuntzaren inguruko proiektuetan parte hartu izana egiaztatutako duten agiriak dagokion hezkuntza-administrazioak emanak.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak iragarritako ikerketa- edo berrikuntza-proiektuetan parte hartu izana, Hezkuntza Sailaren prestakuntza-jardueren erregistroan jasota badaude, EIMA eta NOLEGA</p>

		erakundeek antolatutakoak izan ezik, zeinetan interesdunak jarduera horien ziurtagiriak aurkeztu beharko baititu.
<p>6.3.- Merezimendu artistiko, kirol eta literarioak:</p> <p>Eman daitekeen puntuazioa:</p> <p>Autonomia, nazio edo nazioarte mailako erakusketa edo lehiaketa edo sariketetan lortutako sariengatik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehenengo saria:.....0,75 puntu</li> <li>• Bigarren eta hirugarren sariak:.....0,50 puntu</li> <li>• Accesita:.....0,25 puntu</li> </ul> <p>-- Antzerki- edo zirku-ikuskizunengatik, egile gisa estreinatutako konposizio zein koreografiengatik edo lege-gordailua duten grabazioengatik: ..... 0,75 puntu, bakoitzeko.</p> <p>- Orkestretan edo ganbera-taldeetan (duoak, hirukoteak, laukoteak) zuzendari, aktore, interprete, dantzari edo bakarlari gisa egindako jarduketengatik ..... 0,75 puntu kontzertu bakoitzeko</p> <p>Ganbera-taldeak:..... 0,25 puntu kontzertu bakoitzeko.</p> <p>- Banakako edo taldekako erakusketengatik.</p> <p>Banakako erakusketak:.....0,75 puntu, bakoitzeko.</p> <p>Taldekako erakusketak:.....0,25 puntu, bakoitzeko.</p> <p>-Nazioko edo nazioarteko erakunde edo kanpainetan kultura-ondasunen kontserbatzaile-zahartzaile gisa parte hartzeagatik.....0,5000 puntu</p> <p>-Goi-mailako kirolaria izatea edo izan izana.....1,0000 puntu</p> <p>-Errendimendu handiko kirolaria izateagatik edo izan izanagatik.....0,5000 puntu</p>	<p>2,5000 puntu gehienez</p>	<p>Sarien kasuan: saria ematen duen erakundearen egiaztagiria, saridunaren edo saridunen izena, sariaren arloa eta kategoria. Erakusketen kasuan: parte-hartzea eta erakunde antolatzailearen ziurtagiria jasotzen duten programak.</p> <p>Antzerki- edo zirku-ikuskizunak eta konposizioak eta koreografiak meritu gisa egiaztatzeko: horren egilea dela eta lege- gordailua adierazten dituen egiaztagiri edo ziurtagiria.</p> <p>Grabazioen kasuan: horren egilea edo interpretea dela eta lege- gordailua adierazten dituen egiaztagiri edo ziurtagiria.</p> <p>Emanaldi eta kontzertuen kasuan: interesdunak parte hartu duela adierazten duten programak eta erakunde antolatzailearen egiaztagiria. Bertan, kontzertua burutu dela adierazteaz gain, interesdunaren parte-hartzea zehaztuko da: Orkestra/taldea duen bakarlaria, zuzendaria, aktorea, interpretea edo dantzaria.</p> <p>Banakako edo taldekako erakusketen kasuan: Jatorrizko programa edo fotokopia – interesdunaren parte-hartzea jasotzen duena– eta galeria/erakundearen ziurtagiria (museoak, fundazioak, administrazioa) erakusketa egin dela eta interesdunak parte hartu duela adieraziz.</p> <p>Kontserbazioaren eta zaharberritzearen eremuan parte hartu izana egiaztatzeko: erakunde antolatzailearen ziurtagiria, kontserbatzaile-zaharberritzaile gisa parte hartu duela jasotzen duena.</p> <p>Goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaria dela egiaztatzeko: Kirol Kontseilu Gorenak emandako ziurtagiria.</p>

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
<p>6.4. Hezkuntza administrazioko lanpostuetan aritutako zerbitzu-urte bakoitzeko, lanpostu-mailako osagarria parte hartzen dueneko kidegoak daukanaren berdina edo altuagoa denean:</p> <p>Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,1250 puntu emango dira hilabete osoko.</p>	1,5000 puntu	<p>Hezkuntza-administrazio eskudunak emandako izendapenaren kopia, jabetze eta kargu-uzteen izapideekin edo, hala badagokio, eskabidea aurkezteko epearen amaieran karguan jarraitzen duela jasotzen duen egiaztagiria.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioko lanpostuetan emandako zerbitzuak</p>
<p>6.5.- Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak aipatzen dituen irakasleen kidegoetara sartzeko hautaketa-prozeduretan epaimahaikide gisa benetan jardun den deialdi bakoitzeko:</p> <p>Azpiatal honetan, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretua (martxoaren 2ko BOE) indarrean jarri ondoren epaimahaietan parte hartu izana soilik baloratuko da.</p>	0,5000 puntu	<p>Deialdia egin duen hezkuntza-administrazioan prozedura horietako epaimahaien aktak zaintzeaz arduratzen den organoak egindako ziurtagiria.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak kidegoetan sartzeko eta iristeko deitutako hautaketa- prozeduraren batean epaimahaiko kide aritu izana.</p>
<p>6.6.-</p> <p>6.6.1.- Hezkuntza-sistemako zenbait irakaskuntzatan irakasle gisa aritzeko beharrezkoa den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzeko, masterraren unibertsitate-titulu ofizialari loturiko praktiketan tutore izateagatik, edo irailaren 23ko EDU/2645/2011 Aginduaren bidez (BOE, urriaren 5ekoa) araututako prestakuntza baliokideari loturiko praktiketan, baita hala eskatzen duten graduako unibertsitate-tituluak lortzeko praktiketan tutorea izateagatik, urte bakoitzeko:</p> <p>6.6.2.- Sartzeko hautaketa-prozeduretako oposizio- eta lehiaketa-faseak gainditu dituztelako hautatutako izangaien praktikaldiko tutoretza-ikastaro bakoitzeko, praktikaldia 2023/2024 ikasturteetik aurrera egin bada.</p>	<p>0,1000 puntu</p> <p>0,2000 puntu</p>	<p>Bi azpiataletarako, eskumena duen hezkuntza-administrazioak edo, hala badagokio, tutoretza egin den ikastetxe publikoko zuzendariak emandako ziurtagiria, ikasturtea eta praktiken iraupena adierazita.</p> <p>6.6.1 azpiatalean, halaber, Hezigunean lortzen den tutoretza-ziurtagiri indibiduala edo praktiketako tutoretza-lerroa jasotzen duen prestakuntza-jardueren ziurtagiriaren kopia onartuko da egiaztagiri gisa.</p> <p>6.6.2 azpiatalean, ofizioz zenbatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko ikastetxeetan praktikak egiteko fasearen tutoretza.</p>

MEREZIMENDUAK		BALORAZIOA		EGIAZTAGIRIAK	
6.7.- Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa ez den lanpostuetan, euskararen ezagutza merezimendutzat hartuko da (destinoen behin-behineko edo behin betiko esleipenaren unean soilik aplikatu daitezke) eta honela baloratuko da		5,0000 puntu gehienez			
Egiaztatutako eskakizuna	Lanpostuaren eskakizuna				
	1.HE atzeratua	1. HE betea	2. HE betea		
1.HE (B2)	2 puntu	-	-		
2.HE (C1)	3 puntu	2 puntu	-		
C2	4 puntu	3 puntu	2 puntu		
Parte-hartzaileak euskararen hainbat hizkuntza-titulu edo -ziurtagiri aurkezten baditu, maila altuena duena baino ez da kontuan hartuko.					

## XEDAPEN OSAGARRIAK

Lehenengoa.-

Parte-hartzaileek aurkezten dituzten merezimenduak beteta eta onartuta izan beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Beraz, epe hori amaitu arte eginiko eta egiaztatutako merezimenduak soilik baloratuko dira.

Bigarrena.- Antzintasuna.

Ikastetxeko antzintasuna baloratzeko (1.1.1.), desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoko irakasleak (591) Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan (590) integratu badira ere zenbatuko da. Beraz, zenbaketa horretan ez da bereizketarik egingo bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko dataren arabera.

Karrerako funtzionario gisa zerbitzu aktiboan emandako benetako zerbitzuak baloratzeko (1.2), kidego bereko espezialitateetan izandako esperientzia modu berean baloratuko da, espezialitate horietan zerbitzuak eman diren kidegoan edozein dela ere:

- Bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoan (590) sartutako lanbide-heziketako espezialitateetan emandako zerbitzuak, kidego horretako lanpostu hutsei dagokienez, modu berean baloratuko dira, 590 edo 591 kidegoetako espezialitateetan eman diren kontuan hartu gabe.
- Sektore berezietako irakasle espezialisten kidego (598) berrian sartutako espezialitateetan emandako zerbitzuak modu berean baloratuko dira kidego horretako lanpostu hutsetarako, kontuan hartu gabe 591, 598 edo 590 kidegoetako espezialitateetan eman diren (azken kasu horretan, bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoan integratutako irakasleena espezialitate horietan).

1.1.3 azpiatalarengatik puntuak emango zaizkie egoera hauetan dauden lehiaketako parte-hartzaileei:

- Lehiaketan 1.1.1 azpiatalaren arabera parte hartu eta behin betiko destinoa zailtasun bereziko plaza, lanpostu edo zentzoren batean dutenak.
- Lehiaketan 1.1.2 azpiatalaren arabera parte hartu eta behin-behineko epealdian zailtasun bereziko plaza, lanpostu edo zentzoren batean egon direnak.
- Zerbitzu-eginkizuna zailtasun bereziko kalifikazioa duen beste plaza, lanpostu edo zentro batean duten 1.1.1 eta 1.1.2 azpiatalerako parte-hartzaileak.

Hirugarrena.- Merezimendu akademikoak.

1.- Izaera ofizialeko beste unibertsitate-titulazio batzuegatik puntuazioa lortzeko, parte-hartzaileek dituzten titulu guztien kopiak aurkeztuko dituzte, kidegoan sartzeko alegatutakoa barne, Langileen Erregistroan jasota ez badaude.

2.- 3.1 azpiatalaren azpiataletan, aurkezten diren titulu guztiak baloratuko dira, horietan ezartzen diren irizpideen arabera.  
3.1.2 azpiatalean ez da barematuko irakasle-lanbidean jarduteko gaitzen duen unibertsitate-masterreko titulurik, baldin eta titulazio hori eskatzen bada lehiatzaileak lortu nahi dituen lanpostuen kidegoan sartzeko.  
Era berean, 3.1.2 paragrafoaren ondorioetarako, doktore-titulua alegatzen denean, ez da baloratuko doktoregoan sartzeko baldintza den master ofizialeko titulua.

3.- Lehen zikloko titulazioen baremazioari dagokionez, ez da titulutzat joko egokitze-mailak gainditu izana. 3.2 atala baloratzeko, ez dira titulu desberdintzat hartuko titulazio berean ageri diren aipamen desberdinak.

4.- Tituluak atzerrian lortu badira edo beste herrialde batzuetako hezkuntza-erakundeek emanak badira, gainera, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera homologazioa edo dagokion lanbide-kualifikazioa onartua izatea gehitu beharko da.

5.- 3.1 eta 3.2 azpiataletan ez dira barematuko unibertsitateek beren autonomia erabiliz ematen dituzten unibertsitate-titulu ez-ofizialak, irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren 36. artikulua arabera (errege-dekretu horrek unibertsitate-irakaskuntzen antolamendua eta haien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen ditu).

6.- 3. atalean ez dira baloratuko graduondoko, espezializazioko, unibertsitateko aditu eta antzeko ikastaroak. 5. puntuari adierazitakoak eta 6. puntu honetan adierazitakoak, titulu ez-ofizialak direnez, prestakuntza-ikastaro gisa tratatuko dira 5.1 atalean.

7.- Ez dira baloratuko titulu ofizialak Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko mailekin bat datozela adierazten duten adierazpenak, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan xedatutakoaren babesean emandakoak.

8.- Ez dira 3.1.4 azpiatalean baloratzen Unibertsitate Errendimenduko Bikaintasun Sari Nazionalak, ikasle prestua izateagatik sariak eta diplomaturetako aparteko sariak.

Laugarrena.- Zuzendaritza-karguen eta beste funtzio batzuen balorazioa.

1.- Merezimenduen baremoko 4.1, 4.2 eta 4.3 azpiataletan aurreikusitako ondorioetarako, bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoen parekotzat hartuko dira honako hauek:

- Batxilergoko Institutuak
- Lanbide Heziketako ikastetxeak
- Helduen Hezkuntzako ikastetxeak, betiere azpiatal horietan aipatutako ikastetxeetan ematen diren ikasketa berdinak ematen badira.
- Irakaskuntza bateratuen ikastetxeak.

Horien ondorio beretarako, Musika Kontserbatorioetako Musika eta Arte Eszenikoetako katedradun eta irakasleen kidegoetako lanpostuak dagozkien ikastetxe publikotzat hartzen dira:

- Goi Mailako Musika edo Dantza Kontserbatorioak
- Musika edo Dantza Kontserbatorio Profesionalak
- Oinarritzko Musika Kontserbatorioak
- Goi Mailako Antzezpen Eskolak
- Goi Mailako Kantu Eskolak

2.- Merezimenduen baremoko 4.2 azpiatalean aurreikusitako ondorioetarako, bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoen pareko zuzendari-karguak honakoak joko dira:

- Idazkari ondokoa
- Idazkariordea
- Atal honetan aipatutako karguak, Lanbide Heziketako ataletan egin direnean
- Ikasketaburu ondokoa



- Egoitzaburua
- Batxilergoko institutuuetako edo horien antzeko ikastetxeetako ikasketaburuaren ordezkaria autonomia erkidegoetan
- Atal Delegatuko ikasketen zuzendaria/burua
- Atal Filialeko zuzendaria
- Irakaskuntza Ertaineko Patronatuko Ikastetxe Ofizialeko zuzendaria
- Lanbide Heziketako ikastetxeetako administratzailea
- Lanbide Heziketako atalaren kasuan, irakasle ordezkaria

3.- Merezimenduen baremoko 4.3 azpiatalean aurreikusitako ondorioetarako, halaber, honako funtzio hauek baloratuko dira:

- Haur Hezkuntzako zikloko koordinatzailea
- Lehen Hezkuntzako zikloko koordinatzailea
- Irakaskuntza Ertainen Erreformako (IEE) koordinatzailea
- DBHko koordinatzailea
- DBHko irakasle ordezkaria
- Berritzeguneko aholkularia
- Saileko arduraduna

4.- 4.3 azpiatalaren ondorioetarako, zikloko koordinatzaileari egiten zaion erreferentzia Haur Hezkuntzako zikloari eta Lehen Hezkuntzako zikloei bakarrik dagokie.

5.- 4.3 azpiatalean aurreikusitako ondorioetarako, hilabete osotzat hartuko da urteko egutegia banatzen den hamabi hilabeteetako lehenengo egunean hasi eta azken egunean amaitzen dena. Ez dira barematzen hilabeteetik beherako zatiak.

Bosgarrena.- Prestakuntza eta hobekuntza.

1.- Merezimenduen baremoko 5.1 eta 5.2 ataletan aurreikusitako ondorioetarako, ez dira atal horietakotzat hartzen ikastetxeek eurek zuzenean –duten autonomia pedagogikoa erabiliz– garatutako prestakuntza-jarduerak.

2.-Merezimenduen baremoko 5.3 atalean aurreikusitako ondorioetarako, ez da inola ere atal honetan sartzen, eta, beraz, ez da barematzen titulazioa edo betekizunak edukitzearen bidez edo Lehen Hezkuntzako berezko arloak irakastearen bidez lortutako espezialitateen aintzatespena, azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuan aurreikusita daudenenak. Nolanahi ere, espezialitateak bide horietatik aitortzeak aukera emango du dagozkien espezialitateetara sartzeko.

3.- Prestakuntza-jarduerak baloratuko dira, dagokion irakasle kidegoan sartu aurretik egindakoak izan arren.

4.- 5.2. atala: Ez dira baloratuko Ikerketa eta Irakaskuntzari Laguntzeko Zerbitzuetako langileek emandako prestakuntza- eta hobekuntza-jarduerak, ezta hezkuntza-administrazioan zerbitzuak ematen dituzten langileek egindakoak ere.

Seigarrena.- Beste merezimendu batzuk.

1.- 6.1. atala: Ez dira baloratuko programazioak, oposizioen gai-zerrendak, gradu-amaierako lanak edo master-amaierako lanak, unitate didaktikoak, gelako esperientziak, karrerako irakasgaien lanak, legeria, eskola-egunkariak, azterlan deskribatzaileak eta zerrendatzaileak osatzen dituzten argitalpenak. Era berean, ez dira baloratuko hitzaurreak, ikastetxeen edizioak, eguneroko prentsan argitaratutako artikulua eta iritzi-artikulua. Ikastetxe publiko edo pribatuek jarduerak zabaltzeko egiten dituzten lanak ez dira baloratuko, edozein formatu dutela ere.

2.- argitalpenen 6.1 atalean aurreikusitako ondorioetarako, ez dira halakotzat hartuko 5.1 ataleko prestakuntza-jarduerak batean egindako argitalpenak.

3.- Formatu desberdinetako aldizkariaren 6.1.b) atalean, egileei egiten zaion erreferentzia artikulua, eta ez aldizkariaren, egile bat baino gehiago denean aplikatzen den puntuaziotzat hartu behar da.

4.- Izaera zientifiko edo didaktikoa ez duten argitalpenak ez dira baloratuko, nahiz eta argitaratzeko baldintzak bete.

5.- 6.2 atala: Ez dira baloratuko Unibertsitatearen ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetan parte hartzea, ez eta unibertsitateek deitutako sariak ere. Sariak izendunak izan behar dute, eta ikastetxeei ematen bazaizkie, parte hartzen dutela egiaztatzen duten irakasleak baloratuko dira. Accesitak, saria baino txikiagoa denez, ez dira baloratzen.

6.- Merezimenduen baremoaren 6.2 paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, ez dira inola ere atal honetan sartuko ikastetxeek beren autonomia pedagogikoa baliatuz zuzenean garatutako proiektuak.

7.- 6.3. atala: Ez dira baloratuko ikastetxeetan egindako erakusketak edo kontzertuak, ezta ikasleen kontzertuak eta ikasgaien curriculum-garapenean egindako lanak ere.

8.- 6.4. atala: Hezkuntza Sailean unibertsitatez kanpoko hezkuntzan eskumenak dituzten lanpostuak betetzea baino ez da baloratuko. Azpialak honetan ez da baloratuko, inola ere, Unibertsitatean betetako lanposturik.

9.- 6.5. atala: Epaimahaietako kideak izendatzen dituen Aginduan agertze hutsa ez da balioetsiko, hautaketa-prozesuko oposizio-fasearen ebaluazioan parte hartu izana baizik. Puntuazioa deialdi bakoitzeko da, eta ez urteko.

10.- 6.6. atala: Azpialak berariaz aipatzen ditu gradu eta master titulazioak. Ondorioz, ez da barematuko adierazitako titulazio akademikoez bestelako ikasketak egiteko praktiketako tutorizaziorik.